

Bashō-ren basora bazoaz... (renkuaz eta haikuaz)

Antonio Casado da Rocha
EHUko ikertzailea

Zigor Perales Hernández
EHUko doktorego-ikaslea

Artikulu honek *renku*a aurkezten du, olerki lotuaren forma japoniarra, euskal bertsolaritzarekin antzekotasunik baduena. Antzinako Japonian renkuak nola idazten ziren erakusten dugu lehendabizi, Bashō-ren “Neguko zaparrada”ren (1684) aurreneko bertsoak itzuliz. Renkuak euskaraz (edo beste hizkuntza batean) egiteko modu bat proposatzen dugu ondoren, ariketa honek gure ahalmen poetikoak zein giza harremanak suspertu ditzakeelakoan. Renkutik eratorritakoa, ezagunagoa eta laburragoa den *haiku* jeneroa aztertzen dugu hurrengo atalean, zenbait poeta garaikideren lanak aipatuz; besteak beste, J. F. Azkona eta J. K. Igerabide euskal idazleenak. Debra Kang Dean idazle amerikarrarekin izandako solasaldia eransten dugu azkenik, zeinak renku moduan idatzitako egunkari poetikoa argitaratu zuen 2003an (*Precipitates*). Mendebaldeko olerkigintzan Ekialdeko teknikak erabiltzeko bideak aztertzen dira elkarrizketa horretan.

This article introduces *renku*, a traditional Japanese form of linked poetry similar in some respects to Basque oral poetry (*bertsolaritza*). After a short description, and by translating the initial stanzas of “Winter shower” (1684), written by Bashō in collaboration with other poets, we provide an example of classical *renku* composition. Some guidelines are proposed in order to write *renku* in Basque, in the hope that this exercise will promote both poetic skills and the underlying social practices. We also underline a few features of *haiku*, a shorter and better known form that originated from *renku* practice; examples are taken both from Bashō and from modern Western writers, some of them Basque, such as J. F. Azkona and J. K. Igerabide. Eventually, we discuss the uses of these Japanese techniques with Debra Kang Dean, an American poet whose books show a strong influence from Eastern poetry.

1. Zertaz dihardu *renkuak*?¹

Renkua elkarlanean egindako olerki lotua (*linked poetry*, ingelesez) da, olerkari-talde batek elkarrekin idazten duena, txandaka: batek bertso bat egin, besteak beste batekin erantzun, eta horrela aurrera. Matsuo Bashō² (1644-1694) poeta japoniar klasikoak 100, 50 eta 36 bertsoko *renkuak* idatzi omen zituen. Gaur, Mendebaldeko *renkuek* 20 edo 12 bertso izaten dituzte (hemen aurkeztuko dugun hogeitaz bertsokoari *nijūin* deitzen zaio) eta bertso bakoitzak bi edo hiru lerro.

Renkua Japonian VIII. mendean jada erabiltzen zen *tanka* izeneko olerkietatik edo jainko eta espirituei zuzenduriko kantuetatik dator. Beranduago Gorte Inperialean *tanka*-lehiaketak antolatzen zituzten eta, horietan asmatu zen *renga* edo *renkua*³. Gure bertsolarien teknikak zerikusi handia dute *renkuarekin*, biek behar baitute eguneko (edota eguraldiko) giroaz jabetzeko sena, kontu-kontari aritzeko patxada, edozein gai istant batean egituratzeko erraztasuna, edo batetik bestera jauzi egiteko malgutasuna. Labur esanda, berbaldi txepel eta moldakaitzak kolorez eta bizitasunez janzteko dohaina dute biek, bai bertsolariek bai *renkulariek*.

Halere, ezberdintasun nabari bat dago japoniar *renkua* eta euskal bertsogintzaren artean: *renkua* ez da ahozkoa, idatzizkoa baizik. Bestela, gure bertsogintzan bezala, *renku* bat sortzea joko bat da, bere asmo nagusia ondo pasatzea izaten da⁴: *renkulari* bati bertso dotore edo dibertigarri bat otutzen zaionean, taldeko besteek mirespenaz edo barrez erantzungo diote. Era berean, sorkuntza kolektibo bat denez, *renkuaren* aldaera-ugaritasuna poeta bakartiarena baino aberatsagoa izan daiteke, eta ez da inolako lehiakortasunik egoten.

Adituek diotenez (Higginson & Kondō, 1994a), *renku* bat idazterakoan zenbait arau kontuan izan behar dira, partaideen sormena areagotu eta dispersioa saihesteko, poeta bakoitza bere kasa ibil ez dadin. Arauak lagungarriak diren arren, zaila izaten da taldearen eta norberaren arteko oreka lortzea. Bertso arruntek poema aspergarriak osatzen dituzte, baina “orijinalegiak” diren bertsoak ez dira batere kokatzeko errazak. Bestalde, japoniar olerkigintzak silaba-kopuruari arreta handia egiten dio eta *renkuari* dagokionez, arau finkoa dago: 5-7-5 silabako lerro-hirukotearen ondoren (*hokku*), 7-7ko bikotea (*wakku*) dator. Jakina, beste hizkuntzetan ez dago arau hori aintzat hartu beharrik. Ingelesez, adibidez, *hokku* baten barruan azentuari begiratzen omen zaio, 2-3-2 eskemari jarraituz. Gainera, *hokkuaren* lehenengo edo bigarren lerroaren amaieran ezusteko edo itzulbira bat aurkitu behar da. *Renkua* beti hirukote batekin hasten, eta bikote batekin amaitzen da. Oro har, garrantzitsuena poemak garapen irmoa izatea da, bai irudi bai gai aldetik. Ikusiko dugunez, eta, monotonia saihestearren, zenbait hitz ezingo dira bertso bi edo gehiago pasa arte errepikatu.

1. Arantza Etxeberria Agirianok, Debra Kang Dean-ek eta Iban Zalduak artikulu hau prestatzean emandako laguntza eskertu nahi lukete egileek. Baita W illiam J. Higginson-ek eta Tadashi Kondō-k emandakoa ere.

2. Japoniar ohiturari jarraituz, abizena izenaren aurrean aipatzen dugu.

3. Cf. Atlan & Bianu-ren (2002) antologiaren “Petite histoire du haiku” epilogoia, 207-212. or.

4. XVII. mendetik aurrera, Tokugawa shogunak gobernatzen hasi zirenez geroztik, burgesak eta merkataria *renkua* edo *renga* delakoa eguneroko gaiez jarduteko erabiltzen hasiko dira, jainkoez aritzen zen olerkigintza sekularizatuz (*op. cit.*).

1.1. *Neguko zaparrada*: renku baten sorkuntza

Bashō-k idatzitako renku ugarien artean, bat hautatu dugu renkuaren sorkuntza nolakoa izaten den aztertzeko: “Neguko zaparrada”, 1684ko neguan idatzia. Garai hartan Nagayo-n (Nagasaki eskualdean) bizi zen Bashō, eta bertako poeta-talde batek zenbait renku egin zituen haren ardurapean. Kasu batean, bost poeta hasiberriak elkartu ziren Bashō-rekin: Tsuboi Tokoku arroz-merkataria, Katō Jūgo egurmerkataria, Okada Yasui ehun-gaien banatzailea, Yamamoto Kakei sendagilea eta Koike Shōhei (gutxi dakigu hari buruz).⁵ Poeta gazteak eta ezezagunak denak, 40 urteko Bashō aitzindaritzat hartu zuten, eta horregatik bere gustu eta gogoak nabarmenak dira egindako lanean.

Antzaenez, txandaka hasten zituzten renkuak, eta kasu honetan, Tokoku-ri egokitu zitzaion hastea. Hona hemen idatzi zuen bertsoa, hiru bertsiotan (jatorriz, bertsoak 5-7-5 silaba japoniarrak ditu):

*A cloud, trying to enwrap
The moonbeams, momentarily fails –
A winter shower.*

Tokoku
(Makoto Ueda-k itzulia)

*El aguacero invernal,
incapaz de esconder la luna,
la deja escaparse de su puño.*

Tokoku
(Octavio Paz)

*Hodeia, ilargi izpiak
obatu nahian, alferrik:
neguko zaparrada.*

Tokoku
(ZPH)

Renkuaren lehen bertsoak, hokkuak, osoa edo burutua izan behar du esanahi aldetik; horregatik poema aske bihur daiteke, hots, *haikua*. Bertso hori haiku gisa har dezakegu, bera bakarrik estimatuz. Zertaz dihardu bertsoak? Neguko zaparrada bati buruz ari da, gauez: goian hodei handi eta beltz bat ikus daiteke; potoloa izan arren, zirrikitu batzuk ere baditu, noizean behin zaparrada eten egiten baita eta laino artean ilargia agertu. Horri, Jūgo-k bigarren bertsoa gehitu zion, 7 silabako bi lerroz:

*Someone walks on icy patches,
Making lightning in the water.*

Jūgo(Makoto Ueda)

*Al caminar sobre el hielo
piso la luz de mi linterna.*

Jūgo
(Octavio Paz)

*Putzu jelatuetan dabil norbait,
tximistargiak sortuz ur azalean.*

Jūgo
(ACdR)

5. Cf. Ueda, 1982.

Bigarren bertso hori, wakkua, ezin da aske ibili; lehenengo bertsoari erantzun behar baitio, elkarrekin 5 lerroko poema bat osa dezaten. Jūgo-ren bertsoak honelaxe egin zuen:

*Hodeia, ilargi izpiak
obatu nahian, alferrik:
neguko zaparrada.*

*Putzu jelatuetan dabil norbait,
tximistargiak sortuz ur azalean.*

Jūgo-k gizaki bat kokatu du eszenan. Zaparradak putzuak sortu ditu, izotz finez estaliak; ibiltaria horien gainean pausatzen denean, izotza puskatu eta ur-zipriztinak sortzen ditu: ilargiaren islak tximistargi txikien antza du. Jūgo-k mugimendua eta parada eransten dizkio Tokoku-ren bertsoari. Orain Yasui-ren txanda da. Berak honako hau idatzi zuen:

*The New Year's hunter,
On his back a quiver
Adorned with ferns.*

Yasui
(Makoto Ueda)

*Al alba los cazadores
atan a sus flechas
blancas hojas de helechos.*

Yasui
(Octavio Paz)

*Eguberriko ehiztariak
iratze hostoekin apaindurik
buiraka darama lepoan.*

Yasui
(ACdR)

Jūgo-ren bertsoari hau gehitua, olerki berri bat sortu zaigu:

*Putzu jelatuetan dabil norbait,
tximistargiak sortuz ur azalean.*

*Eguberriko ehiztariak
iratze hostoekin apaindurik
buiraka darama lepoan.*

Orain Jūgo-ren lerro-bikoteak esanahi berri bat du. Sasoia Eguberria da (tes-tuinguru honetan, urtarrilaren 1etik 15era), eta unea ez da gaua, baizik eta goiz hotza. "Norbait" hori ez da ibiltari ezezaguna, ehiztaria baizik. Elkar hartuta, ondo apainduriko gizonaren bi bertsoek basoan zehar ehizan dabilen irudi zehatza eskaintzen dute. Eguzkiak ur-zipriztinak tximista bihurtzen dituzenez, iratze berdeek kontraste ederra egiten dute.

Renku bateko bertso guztiek, lehenak eta azkenak izan ezik, Jūgo-ren bertso horren modu berberean jardun behar dute. Bakoitzak oihartzuna eman behar die

aurrekoari eta hurrengoari, kasu bietan aparteko 5 lerroko poema sortuz. Egitate horrek renkuak idazteari erakargarritasuna ematen dio. Euskal bertso gintzan gertatzen den bezala, poeta batek bertso bat bota eta gero, beste poeta batek jaso eta interpretazio berria ematen dio, aurrekoaren esanahi ezkutuak erakutsiz.

“Neguko zaparrada” renkuan, hurrengo txanda Bashō-ri dagokio. Bikote bat idatzi eta gehitu zion Yasui-ren hirukoteari:

*Eguberriko ehiztariak
iratze hostoekin apaindurik
buiraka darama lepoan.*

*Ipar atea guztiz zabaldua:
Udaberria hasi da!*

Bashō
(ACdR)

*The northern gate is open
and the beginning of springtime.*

Bashō
(Makoto Ueda)

*Abriendo de par en par
la puerta norte del Palacio: ¡la Primavera!*

Bashō
(Octavio Paz)

“Ipar atea” jauregi bateko zerbitzurako sarrera da (sarrera nagusia hegoaldean egoten da).⁶ Bashō-ren interpretazioaren arabera, “Eguberriko ehiztaria” ez da edonor izango, aitoren seme bat baizik, ekintza erritual bat egiten duena. Aurreko “nekazari giroa” gorteko, dotoreago bihurtu zaigu. Ezustekoren bat barne, giro dotoreari eutsi dio Kakei-k egindako hurrengo bertsoak:

*Ipar atea guztiz zabaldua:
Udaberria hasi da!*

*Zaldien satsa garbitzeko
arrasteluaren gainean,
haizetxo lurruntsua.*

Kakei
(ACdR)

*Over a fan
That brushes away the horse dung,
A hazy breeze.*

Kakei
(Makoto Ueda)

*Entre los rastrillos
y el estiércol de los caballos
humea, cálido, el aire.*

Kakei
(Octavio Paz)

6. Ohartzekoa da jatorrizko poemari japonierazko “zabaldu” eta “hasi” aditzak berbera direla; horra hor Bashō-ren hitz-joko bat.

Orain ehizaren gaia desagertu egin da. Negua bukatu da eta, aitoren seme bat paseoan dabil, zerbitzariak lagunduta. Zerbitzurako sarreratik pasatzen direnean, zaldi-mokordo batekin topo egin dute. Zerbitzari batek, arrastelua eskuetan, oraindik bero dagoen satsa garbitzen du. Nahiz eta gaia gordina den, bertsoa ez da trauskil bihurtzen, eszena xarmangarri baizik.

Euria, negua eta gauarekin hasita, goizetik igaro ondoren udaberrira garamatza poemak; dagoeneko joera lirikoa eta errealista txandakatu egin dira. Eta horrela jarraitzen du renku horren garapenak, dituen 36 bertsoak osatu arte.

1.2. Euskal renkua: proposamen bat

Renku bakoitzak gai finko batzuk noiz agertu behar diren dioten araeu begiratzen die. Orokorrean, renkuaren bertso-erdiek urteko sasoiarekin zerikusia duen zerbait aipatuko dute, eta poema osoan lau urte-sasoiak agertu behar dira. Animaliak, jainko-jainkosak, leku apartak, pertsonaia historikoak, landareak eta abar aipatzea dago. Helburu nagusia aldatzea da: gai batetik bestera arin eta erraz mugitzea, solasean bezala, bi bertso baino gehiago eman gabe gai edo aldarte bakoitzari. Errepikapenak saihestuz, bertso bakoitza atzean dagoenari lotzen zaio. Horregatik, renku bukatua “mandala” baten antzekoa dela esan ohi da: bizirik eta hilik dauden gauza guztiak hartzen baititu bere baitan.

Bertsoen arteko lotura zenbait modutan lortzen da: elkartasunaz, kontrasteaz, konparaketaz edo “usainaz”. Renkuak ez du gai finkorik, axola duena gaien garapena delako. Partaideetako bat, renku-zuzendaria da; horrek berrikusten du gai batetik besterako mugimenduen egokitasuna. Renkua bukatu eta gero, beste partaide batek behin betiko bertsoa idatziko du eta partaide guztiei bidaliko die, opari gisa-edo.

Renkuak ikuspuntu anitzez idazten direnez, normalean lehenengo pertsona ez da asko erabiltzen. Hala ere, norberaren oroitzapenak islatzeko eta itxura emateko oso aproposak dira. Izan ere, egungo japoniar kulturaren egun berezia, lagun arteko ekitaldia, leku bitxi baten bisitaldia eta enparauak gogoratzeko idazten dira renkuak. Gainera, renku txiki batean unibertso osoa sar daitekeenez, erabilgarria izan daiteke hizkuntza bat ikasteko edota hedatzeko. Euskara, esate baterako. Hona hemen, Higginson eta Kondō-ri (1999b) jarraituz, gure proposamena euskal renkuak idazteko.⁷

7. Antonio 1999ko udaberrian hasi zen renkuak idazten, Massachusetts-en, Tadashi Kondō maisuarekin; horrek renkuari buruz ingelesez idatzi dituen artikulua ugari irakur daitezke <http://renku.home.att.net> Interneteko helbidean. 2004ko udaberrian, Zigorrekin batera idatzi zuen euskarazko lehenengo renkua, 1. taulan erakusten den Meiga Higashi-ren hogeiko renkuaren ereduari jarraituz.

1. taula: Hogeiko renkuaren (*nijūin*) sasoi gaiak

Egilea: Meiga Higashi, Nekomino Renkukai maisua. Itzultzaileak: William J. Higginson eta Tadashi Kondō (ingelese).

Bertsoa	Eguberrietan hasita*	Udaberrian hasita	Udan hasita	Udazkenean hasita	Neguan hasita
Hokku	EB	UB (Lo)**	UD	UA (II)**	NE
Wakku	EB	UB	UD	UA	NE
Daisan	es	UB	es	UA	es
4	es	es	es	es	es
5	UA (II)	NE/UD (II)	UA (II)	es	UA (II)
6	UA (Ma)	NE/UD (Ma)	UA (Ma)	es (Ma)	UA (Ma)
7	UA (Ma)	es (Ma)	UA (Ma)	es (Ma)	UA (Ma)
8	es	es	es	es	es
9	UD	es	es	UD/NE	es
10	UD	es	es	UD/NE	es
11	es	UD/NE	NE/es	es	UD/es
12	es	UD/NE	NE (II)	es	UD (II)
13	es (Ma)	es (Ma)	es	es (Ma)	es
14	es (Ma)	UA (Ma)	es	NE/UD (Ma)	es (Ma)
15	NE (II)	UA (II)	es (Ma)	NE/UD (II)	es (Ma)
16	NE	UA	es (Ma)	es	es
17	es	es	es	es	es
18	UB	es	UB	UB	UB
19	UB (Lo)	UB (Lo)***	UB (Lo)	UB (Lo)	UB (Lo)
Ageku	UB	UB	UB	UB	UB

Sasoi-gaien antolaketa buruzko oharrak:

*Renkua egiterakoan, "eguberriek" urtarilaren 1etik 15era irauten dute.

**Udaberrian edo udazkenean hasita, loratzea eta ilargia renkuaren lehenengo hiru bertsoetako batean aipatzen dira.

***"Loratzea" baldin badago lehenengo hiru bertsoetan, hemen loratzerik ez.

Laburdurak: EB=Eguberria, UB=Udaberria, UD=Uda, UA=Udazkena, NE=Negua, (Lo)=Loratzeko posizioa, (II)=Ilargiko posizioa, (Ma)=Maitasuneko posizioa; es=ez-sasoikoa. NE/UD marka duen bertso-multzoa bietako bat izan daiteke, baina orduan hurrengo UD/NE multzoak lehenengoaren bestelako sasoikoa izan behar du.

Modu formalean, renkuaren lau atalak lau orrialdetan idatzi behar dira. Era horretan, egitura orokorra honelakoa da: hasiera (*jo*), lehen lau bertso; garapena (*ha*), erdiko hamabi bertso (6+6); amaiera azkarra (*kyū*), azkeneko lau bertso.

Balio poetiko murrizta izan arren, renku bukatu edo burutu baten adibide bat erakusteko nahian, hona hemen renku bat, jatorriz ingelesez idatzia, bere alboan euskarazko itzulpena duena. Lau egileak, bosna bertso egin zituztenak, honatx: Tadashi Kondō (T), Debra Kang Dean (D), Barbara G. Thurston (B) eta Antonio Casado da Rocha (A). Kondō-k saioa zuzendu zuen, eta Dean idazkari lanetan aritu zen. Lau partaideok 1999ko uztailaren 2an elkartu ziren DeCordova museoan (Lincoln, Massachusetts), eta lau ordu eman zituzten renkua osatzen eta ospatzen.

1.3. Udako renku bat

WHEAT HARVEST (TWENTY STANZA)

Wheat harvest—
*the little mouse enters
 a crack into the big barn
 cool wind rises
 weather vane points east
 storm clouds
 statue of Pan darkens
 before rain drops
 like a recurrent dream—
 everywhere the same face*

*the full moon
 rolls and rolls
 in the kaleidoscope
 Thanksgiving with Molly
 Malone and her mussels
 steam fogging the window
 the blush on her cheek
 another fading leaf
 plane ticket back to Spain
 soon a new life begins
 the womb gets scanned
 clean linens
 empty walls
 database program
 completely debugged*

*frost coating pines
 mountain peak shines
 distant bells
 schoolchildren's puffs of breath
 as the moon sets
 reciting phrases
 from Thoreau's books
 and Buddhist sutras
 money, love, fame
 and a nobler truth
 the pond's clear eye—
 her reflection
 troubling the waters
 her father's words echo
 he journeys alone*

*a boat capsizes
 no more photographs—
 just ink and paper
 Loch Ness monster
 of gigantic balloon
 birthday party
 pink cherry blossoms
 on a cup
 a crow casts a shadow
 on a cluster of forget-me-nots*

GARI UZTA (HOGEIKO RENKUA)

Gari uzta:
 sagutxo sartu da
 aletegi handiko zirrikitan
 haize freskoa altxa da
 orratza ekialdera begira dago
 lainoek ilundu dute
 Pan-en estatua
 euriak zipriztindu baino lehen
 amets errepikatuan bailitzan
 aurpegi berbera nonahi
 pirritan eta pirritan
 kaleidoskopioaren muturra:
 ilbetea
 Eskerrak Emateko eguna Dublinen
 Molly-ren muskuiluak
 leihoa lurrinduta
 bere musugorria,
 beste hosto sugartu bat
 Espainiarako itzulera txartela
 bizitza berri bat hastear doa
 sabela eskaneaturik
 maindire garbiak
 pareta hutsa
 datu-base programa
 guztiz zuzenduta
 pinudia antzigarrak estalita
 mendi-gailurra distiratsua
 urrutiko kanpaiak
 ikasleen hats hodeitxoak
 ilargia ezkututzen den bitartean
 sutra budistak zein
 Thoreau-ren liburuetatik
 esaldiak errezitatzen
 dirua, amodioa, ospea
 eta nobleagoa den egi bat
 aintziraren begi argia:
 oraindik ere neskaren islak
 urak nahasten ditu
 haren aitaren hitzen oihartzunak
 mutilaren bidaia bakartian
 txalupa irauli egin da:
 argazki gehiagorik ez,
 tinta eta papera soilik
 Ness lakuko munstroa
 eta bere globotzarra
 urtebetetze jaiari
 aho-zapi arrosak edontzietan:
 gereziando loratua
 belearen itzala
 oroiloreen multzo baten gainean

2. Haikuaz

Haikua, renkuarengandik bananduriko olerki-mota dugu, bere buruaren jabe bihurtu den hokkuaren itxurakoa. Bashō-k hainbat arau eta printzipio ezarri zizkion. Aipatu silaba-kopuruari begiratzeaz gain, *kigo* delako sasoi-hitzaren beharrezkotasuna aldarrikatu zuen. Hau da naturaren eta gizakiaren arteko lotura bermatuko duen elementua: paisaiaz, eguraldiaz edo ari dena. Maisu honen arabera haikuak betikotasuna (*fueki*) eta iragankortasuna (*ryūko*) erakutsi behar ditu aldi berean. Subjektibitatea iradokia baino ez da izango. Metaforak ere, izendatu baino era naturalean agertuko dira. Oro har, haikuak diskurtso arrazionalaren kontraesantatetik —isiltasuna/hitza, ametsa/errealitatea...— harantzago edo honantzago joatea du helburu, hutsune estetika baten argipean. *Zen* budismoaren errukiaz eta apaltasunez, izakien jariora islatzea du gogoko, irudi xumeen esanahia gehiegi finkatu gabe⁸:

*Zaldiaren gainean
ur gardenean
uhalak aske!*

Shiki⁹
(ZPH)

*À cheval
dans l'eau limpide
je lâche les rênes!*

Shiki
(C. Atlan & Z. Bianu)

Haikua makrokosmosaren eta mikrokosmosaren arteko harremana estuaz aritzen da maiz, non izaki txikienari ere unibertso mugagabearen duintasun bera ezagutzen zaion:

*Mendiak urrutian —
burruntzi baten ninietan
isladatzen*

Buson¹⁰
(ZPH)

*Les montagnes au loin —
reflet dans les prunelles
d'une libellule*

Buson
(C. Atlan & Z. Bianu)

Bashō, renkulari aparta izateaz gain, haiku-egile onenetarikoak dugu ere. Bere olerkiek egundoko ospea daukate. Hasieran, esan bezala, izadia eta gizakia izango dira haikuen gai nagusiak. Hau nabarmena da bere kasuan. Esate baterako, 40 urte zituela:

8. Cf. "Le sublime au ras de l'expérience", Atlas & Bainu-ren (2002) haiku-antologiaren sarrera, 7-16. or.

9. Masaoka Shiki (1867-1902).

10. Yosa Buson (1716-1783).

*Urmahel zaharra.
Murgildu da igela:
Plast!*

Bashō
(ACdR)

*El espejo de la fontana,
al zambullirse de la rana,
¡hace zas!*

Bashō
(Valle-Inclán)

Edo honako hau, bere bizitzako azken haikua:¹¹

*Gaixorik bidaian,
harat-honat ene ametsak
basamortuan dabilta.*

Bashō
(ACdR)

*Caído en el viaje:
mis sueños en el llano
dan vueltas y vueltas.*

Bashō
(Octavio Paz)

Hogeigarren mendeko haikulari batzuek tradizioaren hainbat arauri muzin egin zieten eta *muki* delako haiku-mota sortu zuten. Kigorik gabeko haiku “librea” da hau. Mendebaldeko poesia aintzakotzat hartu zuten eta II. Mundu Gerra bezalako gertakari historikoak hizpidetzat hartu zituzten; aipatzekoa da hainbat haikulari Japoniako gobernuak erreprimituak izan zirela, beren pentsaera abertzale-gudazalea ez zelako. Modernitateak ekarritako bizimoduaz aritzen hasi ziren ere:

*Hirira jaitsitako
lamien begietan
ezereza*

Toshio¹²
(ZPH)

*Dans les yeux des fées
descendues sur la ville
le vide*

Toshio
(C. Atlan & Z. Bianu)

2.1. Haikuaren ildoan

Mende bereko Mendebaldeko idazle batzuek, halaber, Ekialde Urrunerantz jotzeko beharra sentitu zuten. *Beat* belaunaldiko Jack Kerouac (*On the road*) idazle amerikarrak, adibidez, inspirazio ederra aurkitu zuen haikuetan, *zen* budismoarekin batera. 50 eta 60ko hamarkadetako kultura alternatiboak gizarte kontsumitzaile eta materialistari bizkarra eman nahi izan zion. Norbanakoaren benetako askatasunean, naturarekiko harreman sakonean oinarritutako

11. Cf. Cabezas, 1990.

12. Kimura Toshio (1956an jaioa).

espiritualtasuna bilatzen zuen Kerouac bezalako autore batek¹³. Hiriko burrunba alde batera utzi eta meditazioan barrena abiatu ohi zen:

*Isiltasunaren soinua
da lortuko duzun
jakintza bakarra* Jack Kerouac
(ZPH)

*The sound of silence
is all the instruction
you'll get* Jack Kerouac

Matterhorn edota Desolation Peak mendietan bizi izandako esperientziek, besteak beste, errealitatearen eta ilusioaren arteko muga ikusgaitzari buruz gogoetatzeko parada eskaini zioten:

*Lanbroa gailurraren aurrean
— ametsak
jarraitu egiten du* Jack Kerouac
(ZPH)

*Mist before the peak
— the dream
Goes on.* Jack Kerouac

Txuang Txeu maisu taoistak hegan egiten zuen tximeleta bat zela amestu eta gero, gizakia dela amesten duen tximeleta bat ote zen galdetzen hasi zitzaion bere buruari. Gauza ororen arteko lotura, izakion izaera komuna erakusten digute *zen* budismoan inspiratutako haikuek. Intuizioaren berehalakotasunez, zubiak eraikitzen dituzte olerkiok: gizakia/animalia, zerua/lurra... eta zergatik ez: ekialdea/mendebaldea, natura/hiria:

*Udaberriko ilunsentia
Bostgarren Etorbidean
Txori bat* Jack Kerouac
(ZPH)

*Spring dusk
on Fifth Avenue
A bird* Jack Kerouac

Euskal esparruan ere haikuaren ildoan murgildu diren olerkari batzuk ditugu. Jose Felix Azkona Garziaren *Artius* (1996) lanaren aurreneko atala, "Asunaren desirak", haikuen lerro-kopuru bera duten hiru olerki-sailez osatzen da. Berea haiku librea dela esan dezakegu, silaba-kopuruaren arauari ez diolako begiratzen. Gai eta estilo aldetik, japoniar eruditik gertu-gertu dauden poema arrats ederrak aurkitzen ditugu, batik bat "Zintzarrotsak" aurreneko haiku-sailean:

13. Cf. Agostini & Pajotin, 1998.

*BAT bateko hotzikara:
Gauaren blaustada
Xorroxingo osinean.*

Jose Felix Azkona

Beste adibide dotore bat:

*Zisne luma batek talka
egin du elurraren kontra.
Oihartzun zuria.*

Jose Felix Azkona

“Suari haize emanez” olerki-sailean izaera abstraktu samarra duten poemak agertzen zaizkigu ordea. Era finean baina oso filosofikoan:

*ZU eta ni
Biok batera
Bakarka.*

Jose Felix Azkona

“Euri azidoa dela eta” azkeneko sailean horrelakoak baldin badira ere, giza-kiaren ertzeko bi aroak etorri handiko metaforaz lotzen dituen olerki bat aipatu nahi dugu hemen:

*HAUR eta zaharrak
ez besterik lorategian.
Tximeletaren bi hegala txaloka.*

Jose Felix Azkona

Juan Kruz Igerabidek, bere aldetik, erabat “haikuz” osatutako olerki-liburua argitaratu du duela gutxi: *Hosto gorri, hosto berde* (2002), *Sarean leiho* (1994) haiku-erako olerki-liburuarekin ekin zionari jarraituz. Haikuaren silaba-kopuruaren arauari zuhertasunez jarraitzen dio egileak, kasu bakoitzean ondoan eskaintzen digun gaztelaniazko bertsioan ere bai. Gai aldetik natura dugu protagonista hasieratik bukaerara arte, haiku-tradizioaren modu klasikoan. Lana bi ataletan banatzen da. “Hosto gorria”n olerkariak izadiaren zikloaren amaiera hartzen du abiapuntutzat:

*Hegaka doa
horrixka bakartia
erbesterantza.*

Juan Kruz Igerabide

Arima bezala? Orriak politikak dira hiltorian daudela, suaren kolorekoak. Poetak edertasun honen alde dramatikoa ikusarazten digu. Orrien patua gurearen ispilu:

*Badoaz horriak:
horiekin bizitza
eta idatziak.*

Juan Kruz Igerabide

“Hosto berdea”k naturaren birjaiotze-indarra ospatzen du, bere aldetik. Prozesu honetan gertaera ttipien handitasuna azpimarratzen du olerkariak:

*Hosto gainean
ur-hariak: errekek
haran berdean.*

Juan Kruz Igerabide

Hostoen bizitza izaki orenen islatzat har baldin badaiteke, poetak ez du baina gauza askorik asmatzen. Olerki-bilduma honen sarreran Jon Kortazarrek ongi dioen bezala: “Oztopo egin nahi ez duen eta zeharka jartzen den hostoa olerkariaren begirada da, muin fin eta iheskor hori, hor dagoena, ikusezina, idazketaren prozesu osoa ernaltzen, naturak eta hitzak bat egin dezaten”.¹⁴ Izan ere, bilduma honen atarian agertzen zaigun olerkiari haikuaz esan dugunaren laburpen ezin hobea dela deritzogu:

*Hosto meheak
ez nahi itzalik egin:
zehar zeharka.*

Juan Kruz Igerabide

2.2. Renkuaz eta haikuaz solasean

Debra Kang Dean-ek, jatorri hawaiiar eta japoniarradun idazle iparramerikarra denez, harreman berezia du japoniar olerkigintzarekin¹⁵. Izan ere, Bashō oso garrantzitsua da bere poetikan. Elkarrizketa batean erakargarritasun horren zergatia azaldu zigun: Bashō-ren espiritualtasun sakona ez ezik, bere helburu estetikoa axola zaio, hots, hizkuntz xehetasunaren bidez adierazpide arrunta eta eguneroko bizipenak domeinu poetikora eramatea. Dean-en arabera, beren lanbidea ikasteaz gain, olerkiak sortzeaz gain, poesia-diziplinaren bidez beren nortasuna eraiki behar dutela ere gogorarazten die Bashō-k idazleei. Teknikari ekiten baldin badiote soilik, nolabait esateko eskuen egitekora mugatzen baldin badira, adimena edo bihotza alboratzen ari dira olerkariak, olerkiaren benetako iturria hain zuzen ere.

Dean-en poemak antologia askotan ageri dira, esate baterako: *The Best American Poetry 1999*, *The New American Poets: A Bread Loaf Anthology*, edo *Urban Nature: Poems about Wildlife in the City*. 2003. urtean argitaratu zuen *Precipitates* [“Hauspeatuak”], bere hirugarren olerki-bilduma. Azken liburu honetan renkuaren zenbait teknika erabiltzen zituen, *Patchwork of Selvage* [“Ertz mosaikoa”] atalean hain zuzen ere. Atal honek liburu osoa egituratzen du; Dean-ek hasi zuenean, 1999ko urtarrileko saiakeran, eremu berriak arakatu nahi zituen. Bere estreinako liburua itxuratzen zuten haurtzaroko olerki autobiografikoak idatzi ordez, orainaldian aritu nahi zuen, eta hartu zuen aurrenetako erabaki bat singularreko lehenengo pertsona ez erabiltzea izan zen. Saiakera honetarako renkua baliabide naturala iruditu zitzaion.

Egilearen ustez, *Patchwork of Selvage* lanak renkuaren espirituaren eragina jaso du letrarena baino, zeina oso arau zuhurrez gobernatua den. Hala eta guztiz ere, Dean-ek ohiko metrika erabili zuen bertsoak osatzeko, “ingelesez idazten

14. Igerabide, 2002, 17. or.

15. Idazle honi buruz gehiago jakiteko, bere webgunea <http://www.debrakangdean.com/> bisita daiteke.

duten egungo olerkariak egiten ez dutena, eta arrazoi osoz”. Bertsoz osatutako egunkaria denez, olerkiak sasoiaren zikloari jarraitzen dio, renkuak modu estilizatuago batez egiten duen bezala. Renkuaren gakoa, Dean-en ustetan, eszena edota irudi baten bidez aurreko bertsoari eta, *aldi berean*, hurrengoari aipu egiten dieten bertsoak sortzean datza; helburua ez delako bertso paregabeak idaztea, euren arteko harremana bizkorra izatea baizik. Garapen narratiboak suspertu baino, teknika honek renkuaren “hedaketa” bitxia ahalbidetzen du, *Patchwork of Selvagen* oso nabaria dena.

Haikuak eskaintzen dituen bideei buruz itaunduta, haikuak ingelesez aritzeko eskaintzen duenari buruz denbora luzean nahiko eszeptikoa izan dela erantzun zigun, kultur eta hizkuntz ezberdintasunengatik. “Amerika herrialde handia eta gaztea da. Denborarekin gutxi aldatu diren eta entzuleria zabala izan dezaketen leku historiko edo literario bakan batzuk baino ez daude —hasteko Walden aintzira baino ez zait bururatzen— eta ongi garatutako sasoi-hiztegiak ere ez dugu. Oinarritzat har dezakegun urteko sasoiaren hiztegiak gabe, irtenbide bakarra naturarekiko sentsibilitate fin bat bilakatzea da, eta helbide-aldaketa dezenteren pairatzaile edo emaitza naizenez, haiku on bat idazteko beharrezkoa den ingurugiroaren eza gutza falta zaidala aitortu behar dut”.

Dean-en haiku gogoetako bat, *Precipitatesen* gainidazki gisa agerrarazi zuena da:

*Even in Kyoto—
hearing the cuckoo’s cry—
I long for Kyoto.*

Bashō
(Robert Hass)

*Hasta en Kyoto
—al escuchar el canto del cuco—
echo de menos Kyoto.*

Bashō
(ACdR)

*Kyoton nagoela ere
—kukuaren kantua entzutean—
Kyotoren herrimina.*

Bashō
(ZPH)

Robert Hass-en itzulpenak beregan suspertzen duen sentipena bene-benetakoa dela azpimarratu zigun Dea-nek, hein batean ekonomikoki anana fruituan oinarritzen zen Hawaiiin hezi zelako, hemezortzi urterekin alde egin zuelarik, eta orain Hawaii asko aldatu delako, turismoaren menpean baitago. Hass-en bertsoia hainbeste gustatu izanaren beste arrazoi bat, sasoiaren igarotzeari buruzko aipamen batzuk ernaraztean datza, bai literarioak bai literalak. Eta Dean-ek berak esan zuenez, “Kyoton ere egon naiz eta bere iraganaren mamua sumatu dut orainaldian”.

Bashō and His Interpreters (1991) liburuan, Makoto Ueda adituak honela itzultzen du haikua:

*even in Kyoto
I long for Kyoto—
a hototogisu*

Bashō
(Makoto Ueda)

*Kyoton ere
Kyotoren herrimina:
hototogisu bat*

Bashō
(ZPH)

Hototogisu kukuaren japoniar izen onomatopeikoa da; itzulpen hau jatorrizkoaren sintaxiari datzekio estu-estu, eta beste bertsioaren aldean ezberdintasun interesgarriak eskaintzen dizkigu. Hass-en itzulpenean sentimendua eragiten duena *ni*aren kanpoko zer edo zer da, iraganeko eta egungo Kyotoren arteko aldea azpimarratzen duena. Ueda-k itzulitako haikua Hass-enarena amaitzen den lekuan hasten dela dirudi; sentipena da nagusi orain eta ondoren *hototogisua* agertzen da, kukuaren kantuari esker Kyoto biak bakar batean urtzen direlarik behin-behinekoz. Dean-en ustez, olerki honek bederatzigarren mendeko Sosei monje budistak bizi eta idatziz jarri zuena ikusteko, sentitzeko eta jasateko aukera ematen digu, Bashō-ri nahiz guri. “Sentipen honen bidez bat egiten dugu berarekin eta bi mundutan batera bizitzea posible egiten zaigula esan genezake; eta naturak eskainia denez, aldaketan menpe dagoenez, bizipen honi alde egiten utzi behar diogu aldi berean”.

Erreferentzia bibliografikoak

- Agostini, Bertrand & Pajotin, Christiane (1998): *Itinéraire dans l'errance –Jack Kerouac et le haïku*, Paroles d'Aube, Paris.
- Atlan, Corinne & Bianu, Zéno (2002): *Haiku –Anthologie du poème court japonais*, Gallimard, Paris.
- Azkona, Jose Felix (1996): *Artius*, Euskaltzaindia/BBK Fundazioa, Bilbo.
- Cabezas, Antonio (1990): *La literatura japonesa*, Hiperión, Madril.
- Higginson, William J. & Kondō, Tadashi (1994a): «Link and Shift. A Practical Guide to Renku Composition», *Journal of the Faculty of Economics*, 1994ko otsaila, 24:2, 116-125. or., Seikei University, Tokio.
- , (1994b): «Shorter Renku», *Frogpond (Journal of the Haiku Society of America)*, 1994ko abendua.
- Igerabide, Juan Kruz (1994) *Sarean leiho*, Irun, Alberdania.
- , (2002): *Hosto gorri, hosto berde – Hoja roja, hoja verde*, Centro de Lingüística Aplicada Atenea, Madril.
- Kang Dean, Debra (2003): *Precipitates*, BOA Editions, Rochester (NY).
- Paz, Octavio (1957): «Tres momentos de la literatura japonesa», in *Las peras del olmo*, Universidad Nacional Autónoma de México, Mexiko.
- Ueda, Makoto (1982): *Matsuo Bashō: The Master Haiku Poet*, Kodansha International, Tokio.
- , (1991): *Bashō and his interpreters: selected hokku with commentary*, Stanford, Stanford University Press.

